

BESTELAKO XEDAPENAK

KULTURA SAILA

3592

AGINDUA, 2011ko ekainaren 22koa, Kulturako sailburuarena; honen bidez, kultura-arloko jaialdi, ziklo, lehiaketa, sariketa eta kultura-ekintza bereziak antolatzeko diru-laguntzak emateko araubidea ezarri, eta 2011rako deialdia egiten da.

Arte- eta kultura-jarduerei dagozkien zereginak eta horien zabalkundeari dagozkionak Kultura Sailaren eskumenekoak dira, betiere Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioako sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen Lehendakariaren maiatzaren 8ko 4/2009 Dekretuaren arabera (2009ko maiatzaren 9ko EHAA, 86. zk.). Aipatutako zereginak, Kultura Sailaren barruan, Kultura Sustatzeko Zuzendaritzari dagozkio, betiere Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen martxoaren 22ko 45/2011 Dekretuan ezarritakoaren arabera (2011ko martxoaren 25eko EHAA, 59. zk.).

Kultura Sustatzeko Zuzendaritzaren iritziz, egokia da jardunbide bat ezartzea, Euskal Autonomia Erkidegoan egiten diren jaialdi, ziklo, lehiaketa, sariketa eta kultur-ekintza bereziei laguntzeko. Jardunbide hori, bestalde, zuzendaritza horren eskumenen esparruan sartzen da, eta hainbat kultura-arlotan jarduerak antolatzeko diru-laguntzak eskainiz gauzatzen da, bereziki, honako arlo hauetan: ikus-entzunezkoak, antzerkia, dantza, musika, ikusmen-arteak eta literatura. Hartara, formula bat bultzatu nahi da kultura-produkzioaren adierazpen guztiak gizarte osoaren eskura jartzeko.

Hori dela-eta, honako hau

EBATZI DUT:

1. artikulua.- Xedea.

1.- Agindu honen xedea da kultura-arloko jaialdi, ziklo, lehiaketa, sariketa eta kultura-ekintza bereziak antolatzeko 2011ko ekitaldiko diru-laguntzak emateko baldintzak arautzea, bereziki honako kultura-arlo hauetan: ikus-entzunezkoak, antzerkia, dantza, musika, ikusmen-arteak eta literatura. Kultura-ekintzok espezializazio- edo berezitasun-maila handikoak izan behar dira, eta interes berezia sortu, Euskal Autonomia Erkidegoko kulturaren eremuan.

2.- Diru-laguntzak jasotzeko, jarduerak honako baldintza hauek bete behar dituzte:

a) Erakunde antolatzailearen jatorria zein den gorabehera, programak edo jarduerak Euskal Autonomia Erkidegoan garatu beharko dira 2011ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitartean.

b) Diru-laguntzen deialdi honetara aurkeztutako programek edo jarduerak ekonomikoki bideragarriak izan behar dute. Hori egiaztatzeko, aurrekontu orekatua aurkeztu beharko da, eta hartan, batetik, gastu- eta sarrera-zenbatekoak parekoak izan beharko dira eta, bestetik, agindu honen 7. artikuluan ezarritako finantzazio-mugak bete beharko dira.

3.- Deialditik kanpo geratuko dira:

a) Kultura-programazio orokorrak; alde horretatik, diru-laguntzen deialdira aurkezteko, jaialdi, ziklo, lehiaketa, sariketa eta ekintza berezi zehatzak aukeratu beharko dituzte eskatzaileek, beren programazioetatik.

b) Dokumentazioa aztertuta, Balioespen Batzordearen iritziz, gehien bat tokiko edo eskualdeko zabalkundea duten jarduerak.

c) Dokumentazioa aztertuta, Balioespen Batzordearen iritziz, kultura-eduki nabarmenik ez duten jarduerak, hau da, kultura-arloren batekin eta, batik bat, honako arlo hauetakoren batekin loturarik ez daukatenak: ikus-entzunezkoak, antzerkia, dantza, musika, ikusmen-arteak edo literatura.

2. artikulua.- Hautaketa eta diru-zuzkidura.

1.- Agindu honen kargura emango diren diru-laguntzak lehiaketa-prozeduraren bidez emango dira; hartara, diru-laguntzak jasotzeko ezartzen den gehienezko muga errespetatuta, eta hautaturiko proiektuen dimentsioa aintzat hartuta, jardueren kalitatea eta bideragarritasuna ziurtatzeko moduko onuradun kopurua baino ez da hautatuko, ezarritako irizpideen arabera betiere.

2.- Agindu honen babesean emango diren diru-laguntzak finantzatzera bideratutako kredituaren zenbatekoa, guztira, laurehun eta laurogeita hamar mila (490.000) eurokoa izango da; zenbateko hori ezin izango da handitu.

3. artikulua.- Onuradunak.

1.- Agindu honen kargura diru-laguntzak eskatu ahal izango dituzte, aginduan bertan adierazten diren kultura-arloetan jarduerak edo programak egiten dituzten pertsona fisiko edo juridikoek – publiko nahiz pribatuak.

2.- Onuradunei diru-laguntzak emateko eta, hala badagokio, ordaintzeko, amaituta egon beharko da Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra eta bere erakunde autonomoek emandako ezaugarri bereko laguntzen edo diru-laguntzen esparruan hasitako eta oraindik bideratzen ari den edozein itzultze-prozedura edo zehapen-prozedura.

3.- Laguntza-deialdi honetara ezin izango dira aurkeztu, kasuan-kasuko zehapenak ezarritako epean, diru-laguntza edo laguntza publikoak eskuratzeko aukera galdu duten entitateak, zigor administratibo edo penalen bat jasotzeagatik, edo horretarako ezgaitzen dituen legezko debekua izateagatik, sexu-bereizkeria dela-eta egoera horretan daudenak barne, betiere Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen azken xedapenetatik seigarrenean araututakoarekin bat etorriz.

4. artikulua.- Eskabideak eta aurkeztu beharreko agiriak.

Agindu honetako diru-laguntzak eskuratzeko eskabideak I. eranskinean azaltzen den inprimakireduaren arabera formalizatuko dira, eta hartan aipatzen diren agiriak aurkeztu beharko dira nahitaez. Eskabideok Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordeari zuzenduko zaizkio, zuzenean edo Herri Administrazioaren Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legean ezarritako beste edozein bide erabilita. Halaber, aplikagarria izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorren eta bere erakunde autonomoen erregistroen sorrera, antolaketa eta funtzionamenduari buruzko apirilaren 29ko 72/2008 Dekretua (2008ko maiatzaren 30eko EHAA, 102. zk.); dekretu horrek aukera ematen die herritarrei eskabideak, idazkiak edo jakinarazpenak edozein herri-administrazioetako edozein organotan aurkez dezaten dekretuko eranskinetan zehazten diren erregistroak erabiliz –batez ere, Zuzenean Herritarrentzako Arreta Zerbitzua–, dekretuan bertan ezarritako moduan betiere. Deialdi honetan ez dago aurreikusita eskabideak bide telematikoz aurkezteko aukera eskaintzerik.

5. artikulua.- Eskabideak aurkezteko eta zuzentzeko epea.

1.- Eskabideak aurkezteko epea bi hilabetekoa izango da, agindu hau EHAAAn argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

2.- Aurkeztutako eskabideak eta gainontzeko agiriak aztertu ondoren, formazko akatsen bat dagoela atzemanaz gero, edo balioesteko aurkeztutako agirietan akatsen bat dagoela ikusiz gero, hamar egun balioduneko epea emango zaio pertsona fisiko edo juridiko interesatuari, akatsak zuzendu ditzan; horrekin batera, ohartarazi egingo zaio, hala egin ezean, eskabidean atzera egin duela joko dela, eta horren berri ebazpen bidez jakinaraziko zaio. Orobat, dokumentazioa aztertu ondoren, agiriren bat falta dela ikusten bada, aipatutako epean akatsa zuzentzeko eta nahitaezko agiriak aurkezteko eskatuko zaio, eta ohartaraziko, hala egin ezean, izapide horretarako eskubidea galdu duela joko dela.

3.- Agindu honetan araututako prozeduraren gehienezko iraupena lau hilabete izango da, agindu hau EHAAAn argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

6. artikulua.- Laguntzak kudeatuko dituen organoa.

Kultura Sustatzeko Zuzendaritzari dagokio agindu honetan arautu eta deitutako laguntzak kudeatzea.

7. artikulua.- Diru-laguntzen muga eta bateragarritasuna.

1.- Agindu honetara biltzen diren programek edo jarduerak jasoko duten diru-laguntzaren guztizko zenbatekoa ez da izango aurkeztutako aurrekontuaren % 50etik gorakoa.

2.- Agindu honen babesean emandako diru-laguntzak bateragarriak izango dira beste erakunde publiko edo pribatu batzuek xede bera betetzeko ematen dituztenekin, baina ezin da inolaz ere gain-finantziatorik gertatu; kasu horretan, bidezkoa izango da diru-laguntza murriztea, diruz lagundutako jardueraren guztizko kostuaren mugaraino.

8. artikulua.- Balioesteko, hautatzeko eta kuantifikatzeko irizpideak.

1.- Aurkeztutako proiektuak balioesteko eta, ondorioz, hautatu behar diren ala ez erabakitzeko eta diru-laguntzen zenbatekoak zehazteko, irizpide hauek erabiliko dira:

a) Jardueraren interes kulturala eta kalitate artistikoa (puntuazio osoaren % 45, gehienez). Proiektu bakoitzean, honako alderdi hauek hartuko dira kontuan, batez ere:

a.1.- Kultura intereseko elementuak:

- Jardueraren garrantzi kulturala.

- Jarduera zenbat ediziotan garatu den, eta gizartean zenbateraino dagoen erroturik.

- Jardueraren eremu-hartzailean antzekorik ez egotea.

- Gaiaren aldetik, berritzaile izatea.

- Proiektua garatzeko moldea hartzaile berriak erakartzeko modukoa izatea, batez ere haur eta gazteen artean.

- Emakumeek proiektuan ekarpen eta partaidetza profesionala izatea eta, oro har, generoaren ikuspegia integratuta egotea.

a.2.- Kalitate artistikoko elementuak:

- Proiektuan parte hartzen duten talde artistiko eta teknikoak.
- Antzestu edo proiektatuko diren lanak edo eduki kulturalak.
- Lan eta eduki horiek egokitzeko modua eta proiektuaren garapena.
- Proiektua taularatzeko proposamena.

b) Aurkeztutako aurrekontu orokorraren arabera, emankizuna zein neurritan autofinantzatzen den, edo finantzazio pribatua duen (puntuazio osoaren % 30, gehienez). Alde horretatik, positiboki balioetsiko dira:

- Jarduera osorik garatzeko finantzazio-alternatibak aurkeztea; izan ere, baliteke eskatutako laguntza osoa ez estaltzea Kultura Sailaren finantzatze-proposamenak.

- Eskaera egiten den edizioaren aurrekoan, beste erakunde publiko batzuek egindako ekarpena.

c) Euskara erabiltzea (puntuazio osoaren % 15, gehienez).

d) Jarduera zein lurralde-esparrutara zuzendurik dagoen, eta ekintzak nolako zabalkunde eta oihartzuna izango duen kanpoan (puntuazio osoaren % 10, gehienez). Jarduerak lurraldeen arteko oreka lortzeko egiten duen ekarpena ere balioetsiko da.

2.- Aurreko paragrafoan ezarritako irizpideak aplikaturik, puntuazio osoaren % 50 lortzen duten proiektuak bakarrik hautatuko dira.

3.- Hautatutako proiektuen artean bakoitzari dagokion laguntzaren zenbatekoa zehazteko, banaketa sistema proportzionala ezarriko da, era honetan: deialdiaren kreditu osoaren zenbatekoa, 1. puntuan agertzen diren irizpideei jarraituz balioespen-fasean lortutako puntuazioaren arabera banatuko da, modu proportzionalan eta Kultura Sailari eskatutako kopuruari aplikatuta, betiere 7. artikuluan ezartzen diren gehienezko mugak errespetatuz.

9. artikulua.- Eskabideen azterketa eta ebazpen-proposamena.

1.- Balioespen Batzorde bati egokituko zaio aurkezten diren eskabideak ebaluatzea, dagokion ebazpen-proposamena hartzea, loteslea izango ez den arren, eta Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordeari igortzea.

2.- Balioespen Batzordea kide hauek osatuko dute:

- Batzordeburua: Kultura Sustatzeko zuzendaria, edo hark izendatutako ordezkoa.

- Batzordekideak: Kultura Saileko hiru teknikari, Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordeak izendaturik.

- Idazkaria: Kultura Sustatzeko Zuzendaritzako teknikari bat, Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordeak izendaturik ere, hitzarekin baina botorik gabe arituko dena.

Balioespen Batzorde horren osaera EHAA-n argitaratuko da, Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordearen ebazpen bidez. Nolanahi ere, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 28. eta 29. artikuluetan abstentzioari eta ezespeneri buruz ezarritakoa bete beharko da.

3.- Eskabideak behar bezala ebaluatu ahal izateko, Balioespen Batzordeak, beharrezko jotzen duen bakoitzean, egoki irizitako argibideak azaltzeko eskatu ahal izango die eskabidegileei, eta, era berean, jardueren arduradunekin elkarriketak egin ahal izango ditu.

4.- Ebazpen-proposamena diru-laguntza ematearen aldekoa denean, bertan honako datu hauek adierazi beharko dira, gutxienez:

a) Erakunde, enpresa, elkarte edo pertsona onuraduna.

b) Diruz lagunduko den jarduera.

c) Emandako diru-laguntzaren zenbatekoa.

d) Agindu honetan ezarritako beste edozein betebeharrak, diru-laguntza jasoko duen proiektua gauzatuko dela bermatze aldera betiere.

10. artikulua.- Ebazpena.

1.- Balioespen Batzordeak egindako ebazpen-proposamena ikusirik, Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordeak ebatziko ditu aurkeztutako eskaerak.

2.- Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordearen ebazpena ebazpen-proposamenarekin bat ez badator, ebazpen hori hartu duen organoak arrazoitu egin beharko du.

3.- Agindu honetan ezarritako diru-laguntzak esleitzeko ebazpena eskatzaileei jakinaraziko zaie banan-banan, eta, gainera, onuradunen zerrenda osoa Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordearen ebazpen bidez; zerrenda horrekin batera, agindu honen babesean diruz lagundutako jarduerak eta emandako diru-laguntzen zenbatekoak ere argitara emango dira.

4.- Ebazpena baiezkkoa denean, agindu honetako 9.4 artikuluko zehaztapenez gain, honako hauek ere adieraziko dira: ordaintzeko era eta epeak, justifikatzeko era, eta agindu arautzaile honetan nahiz orokorrean aplikatzeko den araudian eskatzen diren baldintzak eta betekizunak.

5.- Ebazpena bi hilabeteko epean jakinaraziko zaie interesatuei, eskaerak aurkezteko epea bukatzen den egunetik hasita. Epe horretan ebazpenik jakinarazi ez bada, eskabideak ezetsi direla ulertuko da, betiere azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 44.1 artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako.

Aurreko lerrokan xedatutakoa gorabehera, agindu honetako 5. artikuluan hutsen zuzenketei buruz ezarritakoa aplikatzeko denean, ebazpena emateko epea etenda geratuko da izapide hori bukatu arte, betiere jakinarazpena noiz jaso den eta zuzentzeko epea zein den aintzat hartuta.

11. artikulua.- Betebeharrak.

Agindu honetan arautzen diren diru-laguntzen onuradunek betebeharrak hauek izango dituzte:

1.- Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailaren laguntza jaso dutela nabarmen agertu behar dute, diruz lagundutako jarduera dela-eta argitara ematen diren katalogo, programa, iragarki-kartel, argazki eta gainerako material grafiko eta entzunezkoetan. Material hori euskaraz zabaldu beharko dute, hargatik eragotzi gabe beste hizkuntza batzuetan ere zabaltzea.

2.- Emandako diru-laguntza onartu behar dute. Onuradunek espresuki eta idatziz adierazi ahal izango dute onarpena. Hala egin ezean, diru-laguntza eman zaiela jakinarazten zaien egunetik hamabost eguneko epean diru-laguntzari espresuki eta idatziz uko egiten ez badiote, onartu egin dutela ulertuko da.

3.- Laguntza zertarako eman den, horretarako erabili beharko dute, ez beste ezertarako, salbu eta 6. atalean aldaketan onarpenari buruz ezarritakoa aplikatzeko bada.

4.- Ikuskatze-lana egiteko beharrezko duen dokumentazioa eman beharko diote Kultura Sustatzeko Zuzendaritzari, diruz lagundutako proiektuak behar bezala gauzatuko direla bermatze aldera.

5.- Agindu honen babesean jasotako diru-laguntzei dagokienez, Ekonomia eta Ogasun Sailaren Kontrol Ekonomikoko Bulegoak eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiak euren jardunean eskatzen dieten argibide oro eman beharko dute onuradunek.

6.- Aurkeztutako proiektuaren gainean aldaketarik eginez gero, idatziz jakinarazi beharko diote Kultura Sustatzeko Zuzendaritzari, gehienez hilabeteko epean, esleipenari buruzko ebazpena jasotzen duten egunetik aurrera. Zuzendaritzak, bestalde, 15 egun balioduneko epea izango du erantzuteko, aldaketaren jakinarazpena jasotzen duen egunetik hasita. Epe hori igarota erantzun ez badu, aldaketa onartu dela ulertuko da.

12. artikulua.- Diru-laguntzaren ordainketa.

1.- Agindu honetan araututakoaren kargura ematen diren diru-laguntzak bi zatitan ordainduko dira, honako prozedura honen arabera:

- Lehenengo ordainketa, justifikazioari aurreratua, diru-laguntzaren zenbatekoaren % 75ekoa: diru-laguntza onartu eta hilabeteko epean egingo da, jardueren bideragarritasuna bermatzeko, betiere agindu honetako 11.2 artikuluan ezarritakoaren arabera.

- Bigarren ordainketa, hau da, azkena, gainontzeko % 25ekoa: jardueraren gastua eta beste alderdi batzuk justifikatu ondoren egingo da, hala badagokio, betiere agindu honetako 13.1 artikuluan zehaztutako moduan.

2.- Aurreko paragrafoan xedatzen dena alde batera utzi gabe, esleipen-ebazpenaren jakinarazpena jasotzen denean jarduera dagoeneko bukatuta badago, diru-laguntza osoa ordainketa bakar batean ordaindu ahal izango da, betiere agindu honetako 13.1 artikuluan ezarritako moduan justifikatu ondoren. Hala ere, horretarako, jarduera exekutatu dela eta aurkeztutako eta onartutako aurrekontuaren arabera gauzatu dela egiaztatzen duten agiriak aurkeztu beharko dira eskabidean, nahitaezko gainerako agiriekin batera.

13. artikulua.- Diru-laguntza justifikatzea eta likidatzea.

1.- Agindu honetan arautzen diren diru-laguntzen onuradunek, diruz lagundutako jarduerak amaitu ondoko bi hilabeteko epean, eta, edonola ere, 2011ko abenduaren 31 baino lehen, honako agiri hauek aurkeztu beharko dituzte:

a) Jarduera egin ondorengo memoria; bertan, gutxienez, agindu honetako 8.1 artikuluan ezarritako balioespen-irizpideak bete direla aipatu beharko da.

b) Diruz lagundutako jarduera garatzean izandako gastu eta diru-sarrera guztien zerrenda eta balantzea. Gainera, aurkeztutako eta onartutako aurrekontuarekin bat etorriz, gastu eta diru-sarrera horien faktura edo ordainagiriak aurkeztuko dira, jatorrizkoak edo Kultura Sailaren lurralde-zerbitzuetan konpultsatutako fotokopiak. Diru-laguntzaren zenbatekoa ez bada jardueraren gastu-aurrekontu osoaren % 30etik gorakoa, justifikatu beharreko gastuak ere ez dira izango diru-laguntzaren zenbateko horretatik gorakoak. Halako kasuetan, jardueraren gastu zein diru-sarreraren balantzeari buruzko erantzukizunpeko adierazpena ere aurkeztu beharko da; onuradunak, gainera, konpromisoa hartuko du jardueraren guztizko gastuaren justifikazioa Kultura Sailaren eskura jartzeko, erakunde honek hala eskatzen badio. Hartara, egoki iritzitako frogagiriak egiaztatu ahal izango dira laginketa-tekniken bidez, eta diru-laguntza egoki aplikatu den jakiteko froga nahikoak

lortuko dira. Horretaz gain, hasiera batean aurkeztu gabeko frogagiriak aurkezteko eskatu ahal izango zaio onuradunari.

c) Eskabidea aurkeztu zuten unean onuradunek eskatutako eta geroago jasotako xede bereko beste edozein laguntzaren zerrenda.

d) Jardueraren kariatara argitaratutako katalogo, programa, iragarki-kartel, argazki eta bestelako material grafikoen edo entzunezkoen hizkuntza bakoitzaren ale bana; halakoetan, bestalde, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren babesaren aipamena espresuki adierazita agertu behar da.

2.- Diru-laguntza emateko kontuan hartutako baldintzak aldatu badira, edo beste edozein erakunde publiko zein pribatutatik ere beste laguntza edo diru-laguntzaren bat jaso bada, Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordeak, hala badagokio, likidazio-ebazpena emango du –betiere, aurreko paragrafoetan adierazitakoaren arabera aurkeztu diren agiriak ikusirik, eta aurkeztu diren proiektuetako aldaketez eta horien jakinarazpenaz 11.6 artikuluan ezartzen dena kontuan harturik, diru-laguntzaren helburua bete dela jotzen bada–, eta abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuak diru-laguntzak itzultzeko ezartzen duen prozedurarekin bat etorriz (698/1991 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorren arabera ematen diren diru-laguntzen bermeei eta horiek itzultzeari buruzko erregimen orokorra arautu eta horien kudeaketan parte hartzen duten erakunde laguntzaileek bete beharreko baldintzak, erregimena eta eginbeharrak ezartzen dituen).

14. artikulua.- Ez-betetzeei buruzko araubidea.

1.- Baldintzak ez direla bete ulertuko da honako kasu hauetan:

a) Jasotako diru-laguntza, osorik edo partez, agindu honetan ezarrita ez dauden jardueretarako erabiltzea.

b) Agindu honetan ezarritako betebeharrak edo, hala badagokio, esleipen-ebazpenean ezarritakoak ez betetzea.

c) Diru-laguntzaren likidazio-ebazpenean adierazten den zenbatekoa ez itzultzea, hala badagokio, horretarako ezarritako epean.

d) Diru-laguntza jasotzeko aurkeztutako jarduera aldatzea, osorik edo partez, Kultura Sustatzeko Zuzendaritzak horretarako onespenerik eman gabe agindu honetako 11.6 artikuluan adierazten den eran.

e) Bestelako xedapenetan ezarritako baldintza orokorren bat ez betetzea.

2.- Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kargura laguntza publikoak eskuratzen dituztenentzat ezarrita dagoen arau-hauste erregimenaren menpe egongo dira laguntza hauen onuradunak kasu guztietan.

3.- Artikulu honetan adierazitako egoeraren bat gertatu dela egiaztatzen baldin bada, Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusiari itzuli beharko zaizkio jasotako diru-zenbatekoak eta dagozkien lege-interesak, betiere Euskal Autonomia Erkidegoko Herriogasuntza Nagusiaren Antolaraueti buruzko Legearen Testu Bateratua onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuan eta, hala badagokio, abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan xedatutako moduan, eta horietan ezarritakoa beteta.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehenengoa.- Agindu honetan aurreikusten diren diru-laguntzak Europako Batzordearen 2006ko abenduaren 15eko 1998/2006 (CE) Araudiaren menpe egongo dira (2006ko abenduaren 28ko

EBAO, L 379. zk.); araudi hori Europar Batasuneko Itunaren 107.(87) eta 108.(88) artikulua de minimis laguntzei aplikatzeari buruzkoa da. Laguntza hauek de minimis moduan izendatzen dira; izan ere, pertsona fisiko edo juridiko jakin bati emandako guztizko laguntza ezin da izan 200.000 eurotik gorakoa, hiru zerga-ekitaldiko edozein alditan. Diru-muga horretatik behera, laguntzek merkataritzan eraginik ez dutela eta lehiakortasuna desitxuratzen ez dutela jotzen da, eta beraz ez dira sartzen Europar Batasunaren Ituneko 107.(87).1 artikulua aplikazio-eremuan.

Bigarrena.- Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak eta Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legeak xedatutakoarekin bat, deialdi honen izapideak egiterakoan bildutako datu pertsonalak, deialdiko parte hartzaileek tratatzeko eta argitaratzeko baimena emana dutenak, fitxategi batean sartuko dira; fitxategi horren helburua izango da diru-laguntzen deialdi hau eta deialdi honekin lotutako beste edozein administrazio-prozedura edo –espediente kudeatzea eta parte hartzaileei deialdiaren garapenaren berri ematea. Kultura Saileko Kultura Sustatzeko Zuzendaritza izango da fitxategi horren arduraduna. Datuetara heltzeko, datuak zuzentzeko, datuak ezerezteko edo datuen erabileraren aurka egiteko eskubideak Kultura Saileko Zerbitzu Zuzendaritzan baliatu ahal izango dira. Hau da helbidea: Donostia kalea, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz. Halaber, deialdi honetan parte hartzen dutenek fitxategian dauden datu pertsonalak Euskal Autonomia Erkidegoko beste administrazio publikoei uzteko baimena ematen dute -deialdi honen xede bererako bakarrik- eta, Kultura Sustatzeko Zuzendaritzari baimena ematen diote, beste erakunde publiko batzuetan, aurkeztutako dokumentuen benetakotasuna egiaztatzeko.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.- Agindu honen aurka aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez dezakete interesatuek Kulturako sailburuaren aurrean, hilabeteko epean, agindua argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, edo, bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian eskumen hori duen salaren aurrean, bi hilabeteko epean, agindua argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Bigarrena.- Agindu honek EHAAn argitaratu eta hurrengo egunean izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko ekainaren 22a.

Kulturako sailburua,
MARÍA BLANCA URGELL LÁZARO.

2011ko uztailaren 15a, ostirala

I. ERANSKINA/ANEXO I

DIRULAGUNTZA ESKABIDE-ORRIA/IMPRESO DE SOLICITUD DE SUBVENCIÓN

KULTUR ARLO EZBERDINETAN JAIALDIAK, ZIKLOAK, LEHIAKETAK, SARIKETAK ETA KULTURA EKITALDI BEREZIAK ANTOLATZEKO DIRULAGUNTZAK EMATEA ARAUTZEN DUEN AGINDUA
 ORDEN POR LA QUE SE REGULA LA CONCESIÓN DE SUBVENCIONES PARA LA ORGANIZACIÓN DE FESTIVALES, CICLOS, CONCURSOS, CERTÁMENES Y ACCIONES CULTURALES SINGULARES DE LAS DIVERSAS ÁREAS CULTURALES

ESKATZAILEAREN DATUAK/DATOS DEL/DE LA SOLICITANTE

Izena/Denominación:.....
 IFK/CIF:.....
 Posta helbidea/Dirección postal:.....
 Posta Kodea/Código Postal:..... Herria/Localidad:.....
 Telefonoa/Teléfono:..... Eskukoa/Móvil:..... Faxa/Fax:.....
 Posta elektronikoa/Correo electrónico:..... Weblekua/Sitio web:.....
 Ordezkeri legalaren izen eta abizenak (hala badagokio) / Nombre y apellidos del representante legal (si procede):
 NAN/DNI:.....

JARDUERAREN DATUAK/DATOS DE LA ACTIVIDAD

JARDUERAREN IZENA/DENOMINACIÓN DE LA ACTIVIDAD:.....

 TOKIA/LUGAR:..... DATAK/FECHAS:.....
 Modalitatea/Modalidad: Ikus-entzunezkoak/Audiovisuales. Antzerkia/Teatro. Dantza/Danza. Musika/Música. Arte/Artea. Literatura/Literatura.

ORDAINKETAK EGITEKO DATUAK/DATOS PARA EL LIBRAMIENTO DE PAGOS

Banketxea edo aurrezki entitatea/Banco o entidad de ahorro:.....
 Agentzia/Agencia:.....
 KD/DC:.....
 Kontu zkia./Nº cuenta:.....

.....(e)n, 2011koaren(e)an.

En a de de 2011.

(Legezko ordezkeriaren) sinadura/Firma (del/de la representante legal):

Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoarekin eta Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legearekin bat etorriz, deialdi honen tramitazioan jasotako datu pertsonalak, parte-hartzaileek erabiltzea baimenduko dutenak, fitxategi batean jasoko dira. Fitxategi honen helburua deialdi honetako dirulaguntzak eta deialdi honekin zer ikusia duten beste edozein prozedura edo espediente administratiboa kudeatzea izango da, eta baita deialdi honetara aurkezten diren pertsonen deialdiaren garapenari buruz informatzea ere. Fitxategi honen arduraduna Kultura Saileko Kultura Sustatzeko Zuzendaritza da. Lege horretan adierazitako sarbide, zuzenketa, ezabatze eta aurkatze eskubideak erabiltzeko Kultura Saileko Zerbitzu Zuzendaritzara jo behar da, helbide honetara: Donostia kalea, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz. Halaber, deialdi honetan parte hartu duten pertsonen fitxategian dauden datu pertsonalak Euskal Autonomia Erkidegoko beste herri-administrazioei uzteko baimena ematen dute, deialdi honen xede berdinetarako bakarrik, eta Kultura Sustatzeko Zuzendaritzari baimena ematen diote beste erakunde publiko batzuetan aurkeztutako dokumentuen benetakotasuna egiaztatzeko.

De conformidad con la Ley Orgánica 15/1999, de 13 de diciembre, de Protección de Datos de Carácter Personal, y con la Ley 2/2004, de 25 de febrero, de Ficheros de Datos de Carácter Personal de titularidad Pública y de Creación de la Agencia Vasca de Protección de Datos, los datos personales recogidos en la tramitación de esta convocatoria, cuyo tratamiento es autorizado por los y las participantes en la misma, serán incluidos en un fichero cuyo objeto será gestionar la presente convocatoria de subvenciones y cualquier otro procedimiento o expediente administrativo relacionado con la misma, así como para informar a las personas concurrentes a dicha convocatoria de su desarrollo. La responsable de este fichero es la Dirección de Promoción de la Cultura del Departamento de Cultura. Los derechos de acceso, rectificación, cancelación y oposición se podrán ejercer ante la Dirección de Servicios del Departamento de Cultura, dirigiéndose para ello a la siguiente dirección: calle Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz. Asimismo, las personas concurrentes a esta convocatoria dan su consentimiento a la cesión de datos personales contenidos en el fichero a otras administraciones públicas de la Comunidad Autónoma del País Vasco para finalidades coincidentes con el objeto de la convocatoria, y autorizan a la Dirección de Promoción de la Cultura a comprobar en otros organismos públicos la veracidad de los documentos presentados.

ESKATZAILEAK AURKEZTU BEHARREKO
DOKUMENTAZIOA:

1.- Eskatzaileari buruzko dokumentazioa:

Administrazio honetako Erregistroetan dauden Elkartek edo Fundazioak: Erregistroko ziurtagiria. Gainerako kasuetan, eratze-
eskritura, entitateko estatutuak eta dagozkion Erregistro
Publikoetan inskribatuta dagoela egiaztatzen duen ziurtagiria.

Aurreko puntuan eskatzen den dokumentazioaren ordezko
aitorpena (1).

Eskatzailearen legezko ordezkararen NANaren fotokopia eta
lege-ahalmena duela egiaztatzen duen ziurtagiria, hala badagokio.
IFKren txartelaren fotokopia.

Zerga-zorrak kitatuta dituela (Ogasuna), eta Gizarte
Segurantzako ordainketak eginak dituela egiaztatzen duten
ziurtagiriak (2).

Eskatzailea erakunde bat denean, pertsona ordezkariek
sinatutako zinpeko adierazpenak, erakundea laguntza publikoak
jaso ezinarekin zigortuta ez dagoela, Europako Batzordeak legez
kanpokotzat jotako laguntza fiskaletara ez duela jo, eta azken hiru
ekitaldietan de minimis moduko laguntzetan 200.000 euro baino
gehiago ez duela jaso, adierazten dutenak, II. Eranskinaren
ereduaren arabera.

2.- Jarduerari buruzko dokumentazioa:

Jardueraren egitasmo-txosten zehaztua, gutxienez Aginduaren
8.1. artikuluan zehazten diren balorazio irizpideak nola gauzatzen
diren adieraziz, baita noiz egitekoa den ere.

Jardueraren gastuen eta diru-sarreraren aurrekontu zehatza eta
zehatua, III. Eranskinaren ereduaren arabera (3).

Jarduera finantzatzeko plana.

Ustiapen ekonomikoaren plana (4).

Xede berberaz eskatzen diren beste dirulaguntzen zerrenda (5).

Aurreko ekitaldian jasotako dirulaguntza guztiei buruzko
aitorpen-egintzaren kopia, eta eskabidea egiten den honen aurreko
edizioan hurrenez hurreneko Erakundeetatik jasotako diru-
kopuruen ordainagiriaren kopia.

Izandako azken edizioari dagozkion eta ekonomikoki ustia
daitezkeen jabego intelektualaren gaineko eskubideak ordaindu
izanaren kreditazioa.

Eskabidea hobeto baloratzeko aurkeztu nahi den dokumentazio
osagarria (6).

3.- Ordainketetarako dokumentazioa:

Doakion hirugarrenaren datuen alta edo aldaketa egiteko fitxa,
IV. Eranskinaren ereduaren arabera.

4.- Entregatu beharreko ale-kopurua:

2. puntuan eskatzen den dokumentazioaren ale bat (jarduerari
buruzkoa).

5.- Kultura Lurralde Zerbitzuak eta Zuzenean:

Agirien kopia konpultsatzeko eta emateko, helbide hauetara jo:
Donostia-San Sebastián, 1. 01010 /Ramiro Maeztu, 10. 01008
Vitoria-Gasteiz.

Andia, 13. 20004 Donostia.

Gran Vía, 85. 48011 Bilbao.

DOCUMENTACIÓN A APORTAR POR EL/LA SOLICITANTE:

1.- Documentación relativa al/a la solicitante:

*Asociaciones o Fundaciones inscritas en los Registros
dependientes de esta Administración: Certificado de inscripción.
En otro caso, escritura de constitución y estatutos de la entidad,
así como acreditación de su inscripción en los Registros Públicos
correspondientes.*

*Declaración sustitutiva de la documentación exigida en el punto
anterior (1).*

*Fotocopia del DNI del/de la representante legal del/de la
solicitante, así como acreditación del poder de representación que
ejerza, si así corresponde.*

Fotocopia de la tarjeta del CIF.

*Certificaciones acreditativas de hallarse al corriente en sus
obligaciones tributarias (Hacienda), y en los pagos a la Seguridad
Social (2).*

*Cuando el solicitante sea una entidad, declaraciones juradas
suscritas por la persona representante de que no se encuentra
sancionada con la imposibilidad de obtención de ayudas públicas,
de que no ha accedido a ayudas fiscales declaradas ilegales por la
Comisión Europea, y de que no ha recibido más de 200.000 euros
en ayudas de minimis en los tres últimos ejercicios, según los
modelos del Anexo II.*

2.- Documentación relativa a la actividad:

*Memoria detallada de proyecto de la actividad, que incluya
referencias al menos al cumplimiento de los criterios de
valoración establecidos en el artículo 8.1 de la Orden, así como
calendario de ejecución.*

*Presupuesto desglosado y detallado de gastos e ingresos de la
actividad, según el modelo del Anexo III (3).*

Plan de financiación de la actividad.

Plan de explotación económica (4).

*Relación de otras solicitudes de subvención que se realicen
para el mismo objeto (5).*

*Copia del acto de reconocimiento de todas las subvenciones
concedidas en el ejercicio anterior, y de los abonos percibidos de
cada Institución correspondiente en la edición anterior a la
solicitada.*

*Acreditación de haber efectuado el pago de los derechos de
propiedad intelectual susceptible de explotación económica
correspondientes a la última edición celebrada.*

*Documentación complementaria que se desee presentar para la
mejor valoración de la solicitud (6).*

3.- Documentación para la realización de los pagos:

*Ficha de alta o modificación de datos de tercero interesado,
según el modelo del Anexo IV.*

4.- Nº de ejemplares a entregar:

*Un ejemplar de la documentación solicitada en el punto 2
(relativa a la actividad).*

5.- Servicios Territoriales de Cultura y Zuzenean:

*Para compulsar y entregar documentación dirigirse a estas
direcciones:*

*Donostia-San Sebastián, 1. 01010 /Ramiro Maeztu, 10. 01008
Vitoria-Gasteiz.*

Andia, 13. 20004 Donostia.

Gran Vía, 85. 48011 Bilbao.

AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOARI BURUZKO OHARRAK:

- (1) Lehenengo puntuan eskatzen den dokumentazioaren ordezkotza aitorpena:
Lehenengo puntuan eskatzen den eskatzaileari buruzko dokumentazioa Administrazio honetan baldin badago, Herri Administrazioen Araubidearen eta Guztientzako Administrazio Jardunbidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 35.f artikulua arabera, ez da berriro aurkeztu behar.
Hala bada, aitorpenaren bidez egiaztatu behar da dokumentazioa indarrean dagoela, eta gainera, EAeko Administrazio Orokorreko zein organotan edo bulegotan aurkeztu zen, edo, zeinek egin zuen, eta zein datan.
- Bide hau bakar-bakarrik erabiliko da dokumentazioari dagokion jardunbidea bukatu zenetik hiru urte baino gehiago pasa ez direnean.
- (2) Zerga-zorrak kitatuta (Ogasuna) eta Gizarte Segurantzako ordainketak eginak dituela egiaztatzen duten ziurtagiriak:
Gehienez, eskabidea aurkeztzen den eguna baino sei hilabete lehenagokoak izango dira, eta organo eskumendunek emanak, sinatuak eta zigilatuak. Dena den, dokumentazio hori dela eta, jardunbideak irauten duen bitartean eskatzen zaizkion ziurtagiriak aurkeztu behar dituzte onuradunak, ordainketak egiterakoan batik bat.
- (3) Aurrekontua:
Orekatua izango da, hau da, gastuen eta diru-sarreraren kopuruak berdinak izango dira, eta diru-sarreraren atalean (ente publikoen ekarpenak) Kultura Sailari eskatzen zaion kopurua zehaztu behar da.
- (4) Ustiapen ekonomikoaren plana:
Jarduerak ustiapen ekonomikoa izatea aurreikusita dagoen kasuetan, komertzializazio plana aurkeztu behar da.
- (5) Xede berberaz eskatzen diren beste dirulaguntzen zerrenda:
Beste edozein erakunderi, pribatu zein publiko, xede berberaz eskatzen diren dirulaguntza guztiak zehaztu behar dira, eta dirulaguntza horien egoeraren berri eman (eskatzeko, ukatua, erantzunaren zain ala emana) eta diru-kopurua.
Beste dirulaguntzarik eskatu ez bada, zinpeko adierazpenaren bidez egiaztatuko da.
- (6) Eskabidea hobeto baloratzeko aurkeztu nahi den dokumentazio osagarria:
Jarduera-proiektua hobeto baloratzeko, eskatzaileak egokitzen jarraitzen duen beste edozein dokumentazioa aurkez dezake.

NOTAS SOBRE LA DOCUMENTACIÓN A APORTAR:

- (1) Declaración sustitutiva de la documentación exigida en el primer punto:
Cuando la documentación relativa al/a la solicitante exigida en el primer punto se halle en poder de esta Administración, de conformidad con el artículo 35.f de la Ley 30/1992, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, no será necesario volver a presentarla. En este caso, se deberá aportar declaración en la que se haga constar que dicha documentación se halla plenamente vigente, detallando la fecha y el órgano o dependencia de la Administración General de la C.A.E. en la que fue presentada o, en su caso, emitida.
Tan sólo podrá utilizarse esta vía cuando no hayan transcurrido más de tres años desde la finalización del procedimiento al que correspondan los documentos.
- (2) Certificaciones acreditativas de hallarse al corriente en las obligaciones tributarias (Hacienda) y en los pagos a la Seguridad Social:
Deberán haber sido emitidas, firmadas y selladas por los órganos competentes con no más de seis meses de antelación a la fecha de la solicitud. No obstante, el beneficiario estará obligado a presentar cuantas certificaciones se le exijan sobre estos extremos durante la sustanciación de todas las fases del procedimiento, en especial las de realizar pagos.
- (3) El Presupuesto:
Habrá de ser equilibrado, es decir, la cantidad de gastos y la de ingresos serán equivalentes, precisando en el apartado de ingresos (aportaciones de entes públicos) la cantidad solicitada al Departamento de Cultura.
- (4) Plan de explotación económica:
Cuando se prevea que la actividad vaya a tener una explotación económica, se presentará el plan de comercialización.
- (5) Relación de otras solicitudes de subvención que se realicen para el mismo objeto:
Habrá de detallarse toda subvención que se solicite a cualquier otra entidad, pública o privada, para el mismo objeto, dando cuenta del estado de la misma (por solicitar, denegada, pendiente de contestación o concedida) e importe.
En caso de no haberse solicitado ninguna otra subvención, habrá de presentarse declaración jurada acreditativa de tal extremo.
- (6) Documentación complementaria que se desee presentar para la mejor valoración de la solicitud:
Voluntariamente se podrá presentar cualquier otra documentación que el/la solicitante entienda que sea pertinente para la mejor valoración del proyecto de actividad.

2011ko uztailaren 15a, ostirala

II. ERANSKINA/ANEXO II

ZINPEKO ADIERAZPENAK/DECLARACIONES JURADAS

Nik,,
 (.....entitatearen ordezkari legala naizen
 aldetik,) hauxe adierazten dut: (dagokion kasua adierazi):

Laguntza publikoak jaso ezinarekin bide administratibo edo
 penaletik zigortuta ez dagoela, edo laguntzak jasotzeko ahalmena
 kentzen dion legezko debekurik ez duela, barnean sexuaren
 ziozko bereizkeria egin izanagatik jaso daitezkeenak, Emakumeen
 eta Gizonen Berdintasunerako Legean xedatutakoaren arabera.
 Aurreko kasuren batean aurkitzen dela.

Yo, (como
 representante legal de la entidad)
 declaro que: (indicar el caso que corresponda):

*No se encuentra sancionada administrativa o penalmente con la
 imposibilidad de obtención de ayudas públicas, ni incurso en
 prohibición legal que le inhabilite para ello, incluyendo las
 producidas por incurrir en discriminación por razón de sexo,
 según lo dispuesto en la Ley para la Igualdad de Mujeres y
 Hombres.*

Si se encuentra en alguno de los casos anteriores.

.....(e)n, 2011koaren(e)an.

En, a de de 2011.

(Legezko ordezkariaren) sinadura/Firma (del/de la representante legal):

2011ko uztailaren 15a, ostirala

<p>Nik,, (.....entitatearen ordezkari legala naizen aldetik,) hauxe adierazten dut: (dagokion kasua adierazi):</p> <p>Ondoren adierazten diren eta Europako Batzordeak legez kanpoko eta merkatu komunarekin bateraezintzat jotako laguntza fiskal hauetara ez duela jo: Araba I, II, III (CR 48/99, CR 49/99, CR 58/00); Gipuzkoa I, II, III (CR 50/99, CR 53/99, CR 59/00); Bizkaia I, II, III (CR 52/99, CR 54/99, CR 60/00).</p> <p>Goian adierazitako laguntza baten edo gehiagoren onuradun izan dela eta itzuli egin dituela edota blokeaturiko kontu batean ordaindu egin dituela, dagozkion interesak barne.</p> <p>Goian adierazitako laguntza baten edo gehiagoren onuradun izan dela eta ez dituela itzuli ezta blokeaturiko kontu batean ordaindu egin ere, dagozkion interesak barne.</p> <p>.....(e)n, 2011koaren(e)an. En, a de de 2011. (Legezko ordezkariaren) sinadura/Firma (del/de la representante legal):</p>	<p>Yo,, (como representante legal de la entidad) declaro que: (indicar el caso que corresponda):</p> <p><i>No ha accedido a ninguna ayuda fiscal declarada por la Comisión Europea como ilegal e incompatible con el mercado común entre las siguientes: Alava I, II, III (CR 48/99, CR 49/99, CR 58/00); Gipuzkoa I, II, III (CR 50/99, CR 53/99, CR 59/00); Bizkaia I, II, III (CR 52/99, CR 54/99, CR 60/00).</i></p> <p><i>Ha accedido a una o más de dichas ayudas y ha reembolsado la(s) misma(s) o la(s) ha pagado en una cuenta bloqueada, junto con los intereses correspondientes.</i></p> <p><i>Ha accedido a una o más de dichas ayudas y no ha reembolsado la(s) misma(s) ni la(s) ha pagado en una cuenta bloqueada, junto con los intereses correspondientes.</i></p>
--	--

<p>Nik,, (.....entitatearen ordezkari legala naizen aldetik,) hauxe adierazten dut: (dagokion kasua adierazi):</p> <p>Ez dituela jaso entitate publiko edo pribatuetik 2009, 2010 eta 2011 zerga-ekitaldietan zehar aurrekontu publikoen pentzutan finantzaturako eta de minimis izendaturako laguntzak, eskatzen dena barne, 200.000 euro baino gehiagoko guztirako kopuruan, ekitaldi honetako gainontzeko denboran diru-muga hau gainditzea eragiten duten laguntzak ematen bazaizkio, honen berri emateko konpromisoa hartzen duela.</p> <p>Esandako laguntzak jaso egin dituela aipatu dena baino kopuru handiagoan.</p> <p>.....(e)n, 2011koaren(e)an. En, a de de 2011. (Legezko ordezkariaren) sinadura/Firma (del/de la representante legal):</p>	<p>Yo,, (como representante legal de la entidad) declaro que: (indicar el caso que corresponda):</p> <p><i>No ha recibido de entidades públicas o privadas en el conjunto de los ejercicios fiscales 2009, 2010 y 2011 ayudas financiadas con cargo a presupuestos públicos y calificadas de minimis, incluyendo la que se solicita, por un importe total mayor de 200.000 euros, comprometiéndose a comunicar si en el resto del presente ejercicio se le conceden ayudas que hagan superar dicho límite.</i></p> <p><i>Si ha recibido dichas ayudas por un importe mayor del mencionado.</i></p>
--	--

2011ko uztailaren 15a, ostirala

III. ERANSKINA/ANEXO III

AURREKONTUA/PRESUPUESTO

GASTUAK/GASTOS	
Pertsonal gastuak/ <i>Gastos de personal:</i>	
.....
.....
Funtzionamendu gastuak/ <i>Gastos de funcionamiento:</i>	
.....
.....
Bestelako gastuak/ <i>Otros gastos:</i>	
.....
.....
.....
Guztira/ <i>Total</i> _____	

DIRU-SARRERAK/INGRESOS	
Eskatzailearen ekarpena/ <i>Aportación del/de la solicitante:</i>	
.....
Ente publikoen ekarpenak/ <i>Aportaciones de entes públicos:</i>	
(*) E. J.ren KULTURA SAILA / <i>DEP. CULTURA del G. V.:</i> ..	
.....
.....
Entitate pribatuen ekarpenak/ <i>Aportaciones de entidades privadas:</i>	
.....
.....
Bestelako diru-sarrerak/ <i>Otros ingresos:</i>	
.....
.....
.....
Guztira/ <i>Total</i> _____	

(*) ESKATZEN DEN DIRULAGUNTZA/

SUBVENCIÓN QUE SE SOLICITA:

(guztirako aurrekontuaren %50 baino gehiago ez / *no más del 50% del presupuesto total*)

2011ko uztailaren 15a, ostirala

IV. ERANSKINA/ANEXO IV

DOAKION HIRUGARRENAREN DATUEN ALTA EDO ALDAKETA ALTA O MODIFICACIÓN DE DATOS DE TERCERO INTERESADO	
A: HIRUGARRENAREN EZAGUPENERAKO DATUAK DATOS IDENTIFICATIVOS DEL TERCERO	
(1) NAN/IFK DNI/CIF.....
(2) Izena eta bi abizenak/ Sozietatearen izena Nombre y dos apellidos / Razón social.....
Helbidea Domicilio.....
Posta Kodea Código Postal.....	Herria Población.....
Herrialdea País.....

B: BANKUAREN DATUAK DATOS BANCARIOS	
(1) Bankua Banco	<input type="checkbox"/> <input type="checkbox"/> <input type="checkbox"/> <input type="checkbox"/>
(2) Agentzia Agencia	<input type="checkbox"/> <input type="checkbox"/> <input type="checkbox"/> <input type="checkbox"/>
(3) KD DC <input type="checkbox"/>	Kontu zkia. Nº Cuenta <input type="checkbox"/> <input type="checkbox"/> <input type="checkbox"/> <input type="checkbox"/> <input type="checkbox"/> <input type="checkbox"/> <input type="checkbox"/> <input type="checkbox"/>
(4) Jabea Titular

C Bankuaren adostasuna
Conforme banco:
Sinadura eta zigilua Firma y Sello

D Doakion hirugarrenaren adostasuna
Conforme tercero interesado:
Sinadura eta zigilua Firma y Sello

E Sail edo Erakundearen onespena
VºBº Dpto. u Organismo:
Baimendutako sinadura eta zigilua Firma autorizada y Sello

Datu pertsonalak babesteko 15/1999 Lege Organikoan ezarritakoa betez, Ekonomia eta Ogasun Sailak jakinarazten dizu dokumentu honen bitartez jarri dituzun zure datu pertsonalak fitxategi automatizatu batean sartuko ditugula, ondoren erabili ahal izateko.

Aipatutako Lege horretan jasotzen den moduan, datuok ikusi, zuzendu edo ezabatu nahi dituzula, edo ez dituzula jarri nahi adierazteko, fitxategiaren arduradunarengana jo dezakezu: Ekonomia eta Ogasun Saila. Zerbitzu Zuzendaritza. Donostia kalea, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz.

En cumplimiento de lo dispuesto en la Ley Orgánica 15/1999, de Protección de Datos de Carácter Personal, el Departamento de Economía y Hacienda le informa de que sus datos personales obtenidos mediante la cumplimentación de este documento van a ser incorporados para su tramitación en un fichero automatizado.

Si lo desea, puede ejercitar los derechos de acceso, rectificación, cancelación y oposición previstos por la Ley ante el responsable del fichero: Departamento de Economía y Hacienda. Dirección de Servicios. calle Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz.

INPRIMAKIA BETETZEKO JARRAIBIDEAK

A: Pertsona fisikoa edo juridikoa identifikatzeko datuak, ondoren adierazten denaren arabera:

1. Pertsona fisikoak: nortasun agiri nazionalaren zenbakia, identifikazio fiskaleko zenbakia edo, atzerritarren kasuan, pasaporte zenbakia.
Pertsona juridikoak: identifikazio fiskaleko kodea.

2. Pertsona fisikoak: izena eta bi abizenak.
Pertsona juridikoak: izena edo helbide soziala.

B: Banku-datuak.

1.- Bankuaren kodea eta izena.
2.- Agentziaren kodea eta izena.
3.- Titularrak bankuan duen kontuaren kontrolerako digitua eta zenbakia.
4.- Izena eta bi abizenak, pertsona fisikoen kasuan, eta izena edo helbide soziala, pertsona juridikoen kasuan.

C: Bankuaren sinadura eta zigilua, bankuaren datuak ziurtatzeko.

D: Doakion hirugarrenaren sinadura eta zigilua, agirian azaltzen diren datuak zuzenak direla ziurtatzeko.

E: Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak betetzeko.

DOKUMENTAZIO EUSKARRIA

Nortasun agiri nazionalaren, edo atzerritarren kasuan pasaportearen, edo identifikazio fiskaleko txartelaren fotokopia erantsiko da.

INSTRUCCIONES DE CUMPLIMENTACIÓN

A: Datos identificativos de la persona física o jurídica según se indica a continuación:

1. Personas físicas: número de documento nacional de identidad, número de identificación fiscal o número de pasaporte si se trata de extranjeros.
Personas jurídicas: código de identificación fiscal.

2. Personas físicas: nombre y dos apellidos.
Personas jurídicas: nombre o razón social.

B: Datos bancarios.

1.- Código y denominación de la entidad bancaria.
2.- Código y denominación de la agencia.
3.- Dígito de control y número de cuenta del titular en la entidad bancaria.
4.- Nombre y dos apellidos en el caso de personas físicas y nombre o razón social en el caso de personas jurídicas.

C: Firma y sello de la entidad bancaria certificando los datos bancarios.

D: Firma y sello del tercero interesado, certificando la corrección de los datos que figuran en el documento.

E: A rellenar por la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

DOCUMENTACIÓN SOPORTE

Se adjuntará fotocopia del documento nacional de identidad, pasaporte en el caso de extranjeros, o tarjeta de identificación fiscal.